

Izen arrunten proposamenak Euskal Herriko zenbait txori espezierentzat

Charadrius pecuarius, Ichthyaetus ichthyaetus,
Onychoprion anaethetus, Turnix sylvaticus,
Bubo ascalaphus, Emberiza cioides, Carduelis corsicana,
Euplectes afer, Ploceus cucullatus, Quelea quelea



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA**
**COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI**

Asier Sarasua, Miel Mari Elozegi, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur

2024ko irailean
Euskal Batzorde Ornitologikoa

Charadrius pecuarius

Txirritxoen generoko espezie afrikarra. Sahara hegoaldean nahiko zabaldua dago, batez ere hezeguneetan. Larre eta zelaiak ere maite ditu eta intsektu zein beste ornogabe batzuk dira bere dietaren osagai nagusia, hala nola kakalardoak, armiarmak eta krustazeo txikiak.

Afrikarra izan arren, tarteka ikusi izan dira zenbait ale European (ez oraingoz Euskal Herrian).



Taxonomia

- **Familia:** Charadriidae (11 gen.; 69 sp.)
- **Generoa:** Charadrius (11 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Anarhynchus pecuarius*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Charadrius_pecuarius
- <https://avibase.ca/0F0DCC2F>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntzetan 2 talde handi daude. Kittlitz's Plover eta Corriere di Kittlitz dira ingelesez eta italieraz (antzerka hizkuntza eskandinaviarretan). Aldiz, izen zientifikoari jarraituz aurkituko ditugu Chorlitejo pecuario (ES), corriol pecuari (CA), Pluvier pâtre (FR), Hirtenregenpfeifer (DE), Borrelho-do-gado (PT) eta abar, 'artzain' edo 'itzain', alegia.

Proposamena

Inguruko hizkuntza gehienek bezalaxe, euskaraz ere izen zientifikoari jarraituko genioke euskarazko izen arautua finkatzeko orduan, 'txirritxo itzain'.

Proposamena: *Charadrius pecuarius*, txirritxo itzain.

Beste aukera batzuk: txirritxo artzain.

Ichthyaetus ichthyaetus

Kaioen arteko espezierik handienetakoa, ia-ia kaio beltzaren parekoa (2 kg eta 170 cm-ko hego-zabalera). Identifikatzeko erraza, neurriaz gain oso deigarriak direlako bere buru beltza eta moko hori-gorri-beltza.

Asiarra jatorriz, kontinente erdialdeko hezeguneetan kumatzen da. Nahiko ohikoa da Europa ekialdeko hainbat lurraldetan ere ikustea, ez ordea Europa mendebaldean.



Taxonomia

- **Familia:** Lariidae (23 gen.; 100 sp.)
- **Generoa:** Ichthyaetus (6 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Larus ichtyaetus*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Ichthyaetus_ichthyaetus
- <https://avibase.ca/EF930CDC>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hiru multzotan bana ditzakegu hegazti hau izendatzeko gure inguruan erabili diren izendapenak. Iberiar penintsulako hizkuntzetan izen generiko berezia dute espezie honentzat (eta beste kaio handi batzuentzat) eta ezaugarri fisikoetan oinarritutako izenak sortu dituzte: **gavión** cabecinegro (ES), **gavinot** capnegre (CA), **Gaivotão**-de-cabeça-preta (PT). Frantsesez, alemanez eta Europako iparraldeko beste hizkuntza batzuetan izen zientifikotik abiatu dira (*ichtyaetus*, 'arrain-arranoa' grezieraz): Goéland ichtyaète (FR), Fischmöwe (DE), Fiskimáfur (IS). Amaitzeko, ingelesez eta italieraz eponimoa erabili dute, hegazti hau deskribatu zuen zientzilariaren izena emanez, Pallas's Gull (EN), Gabbiano di Pallas (IT).

Proposamena

Kaio hau ezezaguna da Euskal Herrian eta euskaraz ez du tradiziozko izenik. Izen berri bat finkatzeko orduan, goiko adibideetatik abiatu beharko bagina, 'Pallas kaio' moduko eponimoak saihestu ohi ditugu eta 'arrain-kaio' moduko izen bat ere generikoegia iruditzen zaigu eta batere argia. Aldiz, gaztelaniaren bidetik, 'kaiotzar burubeltz'

moduko izen bat aski argi eta deskriptiboa iruditzen zaigu, hegazti honen 2 ezaugarri nagusiak adierazten dizkigulako, tamaina handia eta bere buru beltz nabarmena.

Izendapen horrek duen arazo bakarra da 'kaiotzar' generikoa sortu behar dugula, baina arazo bezain abantaila ere izan liteke, kaiotzar generikoa erabilgarria izan daitekeelako beste kaio espezie handi batzuk izendatu eta bereizteko, batez ere *L. glaucoides*, *L. marinus* eta *L. hyperboreus* (gaztelaniaz eta katalanez ere *gavión* eta *gavinot* izendatzen dira horiek, hurrenez hurren). Gainera, -tzar atzizkiaren bidez izen arruntak sortzeko baliabidea ohikoa izan da euskarazko animalia izen arruntetan (tradiziozkoetan zein estandarizatuetan) eta ez dauka inolako trabarik (liztortzar, baretzar, beletzar...).

Bestela, agian, 'kaio burubeltz' arrunt batekin ere gainditu dezakegu arazoa, nahiz eta dagoeneko badugun antxeta burubeltza (*Ichthyaethus melanocephalus*) eta agian komeni den kaioen taldera eramatea ('kaio burubeltz' izendatzea, alegia).

Proposamena: *Ichthyaetus ichthyaetus*, kaiotzar burubeltz.

Beste proposamen batzuk: kaio burubeltz.

Onychoprion anaethetus

Itsaso eta ozeano tropikaletan bizi den txenada espeziea. Txenada ilunaren (*O. fuscatus*) oso antzekoa, baina pixkat argiagoa.

Txenaden miru-buztan tipikoa dauka, moko beltz zorrotza eta buru beltza. Mokotik garunera doan marra beltzak estaltzen dio begialdea, zaldi-brida eta aho-uhale baten itxura emanez; ezaugarri horrek ematen dio izen arrunta inguruko zenbait hizkuntzatan.



Taxonomia

- **Familia:** Lariidae (23 gen.; 100 sp.)
- **Generoa:** Onychoprion (4 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Sterna anaethetus*, *Sterna fuligula*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Onychoprion_anaethetus
- <https://avibase.ca/E6518B9D>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Hizkuntza gehienek bide berbera jarraitu dute txori hau izendatzeko orduan, ziurrenik ingelesari segika: Bridled Tern (EN), charrán embridado (ES), sterne bridée (FR), xatrac embridat (CA), Zügelseeschwalbe (DE), Sterna dalle redini (IT).

Proposamena

Koherentzia interlinguistikoa jarraituz, 'txenada bridadun' proposatzen dugu euskarazko izen arautu gisa.

Proposamena: *Onychoprion anaethetus*, txenada bridadun.

Turnix sylvaticus

Turnizidoen familiako kide tipikoa. Turnizidoek itxuraz galeperren antz handia dute (lurtarrak, arreak, pottokoak, moko sendo eta laburrekoak, ez hegalaria handiegiak...), baina talde honetako espezieek ez dute inolako harreman filogenetiko zuzenik galeperrekin eta bai ostera txirri, kurlinta eta oilagorrekin, turnizidoak Charadriiformes ordeneko kideak baitira, haiek bezala.



Talde honetan 17 espezie ditugu, denak Mundu Zaharrekoak eta gehienak Asia eta Ozeania aldekoak. Hala ere, bada espezie bat Afrika iparraldean bizi dena, *Turnix sylvaticus*. Txori txiki eta urri hau duela urte gutxira arte Iberiar Penintsula hegoaldean ere aurki zitekeen eta, beraz, Europako faunaren parte da. Izan ere, azken 150 urteotan Europan desagertu den hegazti-espezie bakarra da.

Taxonomia

- **Familia:** Turnicidae (2 gen.; 18 sp.)
- **Generoa:** Turnix (17 sp.)

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Turnix_sylvaticus
- <https://avibase.ca/0DA8BB90>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Espezie honen kasuan izen generiko egokia aurkitzea da buruhauste nagusia. Galeper baten itxura izan arren, eperren eta galeperren taldetik oso urruti dagoen generoa da Turnix, txirri eta kurlintekin harreman estuagoa du eta. Gaztelaniaz (torillo) eta portugesez (toirão) txoriaren kantuan oinarritutako izen generikoa erabiltzen dute. Frantsesez (turnix) zuzenean izen zientifikoa erabiltzen dute. Italieraz (quaglia tridattila), katalanez (guatlla pintada), nederlanderaz (vechtkwartel) eta ingelesez (buttonquail) 'galeper' izen generikoan (quaglia/guatlla/kwartel/quail) oinarritutako izen binomikoak sortu dituzte genero hau izendatzeko. Alemanez eta hizkuntza eskandinaviarretan ere, antzera, 'oilo' generikoan oinarritutako izen elkartuak sortu dituzte: Løbehøne (DK), Laufhühnchen (DE) eta abar. Azkenik, badira talde hau izen tekniko baten bidez izendatzen dutenak, 'hemipodoak'.

Espezifikatzaileari dagokionez ere hainbat aukera daude, baina 'andaluziar' nagusitzen dela esan daiteke: Torillo andaluz, Turnix d'Andalousie, guatlla pintada andalusa, Endelüs Bildircinyelgesi, Andalusian hemipode eta beste hainbat.

'Arrunt' eta 'europar' ere ohiko dira espezifikatzaileen artean, Europæisk Løbehøne (DK) edo Common Buttonquail (EN), adibidez.

Proposamena

Espezie honek ez dauka tradiziozko izen arruntik euskaraz. Izen generikoa da zailtasun handiena. Gogoan izan behar da, gainera, genero honetan 17 espezie ditugula eta sortzen dugun generikoak nahikoa aukera eman behar duela generoa osotasunean izendatzeko.

Frantsesaren bidea da errazena, izen zientifikoa mailegatuz sortzea izen arrunta, 'turnix'. Edo horren antzeko bidea da genero honetako kideak 'hemipodo' izendatzea.

Bestela, galeper generikoan oinarritutako izenak ere sortu daitezke, baina zailtasunak sortzen zaizkigu:

- hasteko, *galeper* bera ere hitz elkartu bat da eta egokiagoa litzateke *eper* generikotik abiatzea.
- inguruko hizkuntzak kopiatuz 'eper lasterkari' edo 'eper hiruatx' generikoak sortu ditzakegu, baina ez dirudite ez erosoak, ez adierazgarriak, eta munduko 17 espezieak izendatzeko orduan zailtasuna handitu egingo litzateke.
- bestela, *eper* generikoaren gainean, eta turnizidoak Charadriiformes ordeneko kideak direla jakinda, 'txirri-eper' edo 'mingor-eper' estiloko izenak ere proposatu ditzakegu, baina horiek ere ez dirudite oso lagungarri. 'Zezen-eper' edo 'marru-eper' ere izan liteke antzeko beste aukera bat, agian zentzuzkoagoa, hegazti hau bizi izan den lurraldeetako hizkuntzetan oinarrituta (gaztelania eta portugesea) eta txori hauen kantua aintzat hartuta. Hala ere, generikoa bada, ziurtatu beharko genuke genero osoa dela marrularia.

Hortaz, ematen du irtenbiderik erraz eta baliagarriena izen zientifikotik abiatzea dela, beste guztiak ere erabat baztertu barik.

Espezifikatzaileari dagokionez, gure ikuspegitik eta inguruko hizkuntzekin koherentzia gordetze aldera, 'andaluziar' edo 'iberiar' izendatzea izan liteke aukerarik errazena. Egia da, hala ere, ikuspegi europarzentrista ere badela, Afrikan eta Asian oso zabalduta dagoen espezie bat 'andaluziar' edo 'iberiar' izendatzea, batez ere Iberiar Penintsulatik dagoeneko desagertuta dagoenean. 'Magrebtar' erabiltzea izan liteke irtenbidea, agian. Hala ere, inguruko hizkuntzen hautua ikusita eta euskaldunon ikuspegitik abiatuta, 'andaluziar' espezifikatzaile argigarria izan daitekeela iruditzen zaigu, 'arrunt' eta 'txiki' bezain bestekoak, bederen.

Proposamena: *Turnix sylvaticus*, turnix andaluziar.

Beste aukera batzuk: *turnix iberiar*, *marru-eper iberiar*, *txirri-eper magrebtar*, *mingor-eper afrikar*... (nahi adina konbinazio).

Bubo ascalaphus

Afrika iparraldean eta Ekialde Hurbilean bizi den hontz handia. Garai batean gure hontz handiaren (*Bubo bubo*) azpiespezie bezala sailkatua, orain espezie izaera onartzen zaio.

Itxuraz Europako senidearen antz handia dauka, baina neurritz txikiagoa da. Bere habitata du ezaugarri nagusi, batez ere basamortuan bizi delako (baita Afrika iparraldeko kostaldeko basotxo, labar eta mendietan ere).



Taxonomia

- **Familia:** Strigidae (23 gen.; 229 sp.)
- **Generoa:** Bubo (10 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Bubo bubo desertorum*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Bubo_ascalaphus
- <https://avibase.ca/9FD4D3D9>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Europako hizkuntza gehienek habitata edo jatorria erabili dute izen arrunta finkatzeko orduan: Búho desértico (ES), Duc del desert (CA), Wüstenuhu (DE), Gufo reale del deserto (IT) eta antzera ingelesez, Pharaoh Eagle-Owl (EN). Frantsesak, aldiz, izen zientifikoa hartu du oinarri, Grand-duc ascalaphe (FR).

Proposamena

Euskaraz ere antzeko aukerak ditugu, besteak beste garbiena iruditzen zaigun 'basamortuko hontz'.

Proposamena: *Bubo ascalaphus*, basamortuko hontz.

Beste aukera batzuk: *basamortu-hontz*, *hontz faraoi*.

Emberiza cioides

Asia erdialdean bizi den berdantza polita. Burualde gorri, zuri eta beltz deigarri eta nahastezina dauka, eta sabelalde gorritzara.

Habitat lehorretan bizi da, sastrakadi, soro, belardi zein baso irekietan. Habia ere sastraka baxuetan edo lurtean egiten du.

Siberia hegoaldean aurkituko dugu, Kazakhstan eta Japonia artean. Espezie honen hainbat behaketa daude Europan, nahiz eta gehienetan ihes egindako aleak direla ematen duen.



Taxonomia

- **Familia:** Emberizidae (1 gen.; 44 sp.)
- **Generoa:** Emberiza (44 sp.)
- **Sinonimoa(k):** - .

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Emberiza_cioides
- <https://avibase.ca/2D55EC45>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntzetan oso bide desberdinak aurkituko ditugu, ez dago inolako batasunik: Meadow Bunting (EN), Escribano de Brandt eta escribano siberiano (ES), Bruant à longue queue (FR), Sit bigotut (CA), Wiesenammer (DE), Zigolo campestre (IT).

Proposamena

Euskaraz ere goiko edozein eredu izan daiteke baliagarri: berdantza bibotedun, berdantza siberiar, zein larre-berdantza.

Proposamena: *Emberiza cioides*, berdantza bibotedun.

Beste aukera batzuk: *berdantza siberiar*.

Carduelis corsicana

Euskal Herrian bizi den *Carduelis citrinellaren* senide hurbil hau Korsikako eta Sardiniako mendietako basoetan bakarrik aurkituko dugu.

Sistematika aldetik nahiko kokapen eztabaidagarria izan du, karnaben eta txirriskilen artean kokatua, batzuetan espezie bezala, beste batzuetan azpiespezie.

Itxuraz txorruaren (*C. chloris*) antza du, bere kolore gris-bedeia dela eta, nahiz eta lirainagoa den.



Taxonomia

- **Familia:** Fringillidae (49 gen.; 235 sp.)
- **Generoa:** Carduelis (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** *Carduelis citrinella corsicana*, *Serinus corsicanus*, *Citrinella corsicana*.

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Korsikar_txirriskila
- <https://avibase.ca/E2BF60CF>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Inguruko hizkuntza nagusiak aztertuz gero, izen hauek aurkituko ditugu: Corsican Finch (EN), Verderón corso (ES), Venturon corse (FR), Ilucareta corsa (CA), Korsenzeisig (DE) eta Venturone corso (IT).

Txori honen kasuan arazoa ez da espezifikatzailea aurkitzea (begi bistakoa baita 'korsikar' abizena), izen generiko egokiena zein den zehaztea baizik. Eta espezie honentzat ez ezik, baita txirriskilen taldean sartu izan den *Carduelis citrinellarentzat* ere, euskaraz mendi-txirriskil izenarekin ezagutu duguna azkenaldian. Izan ere, oso senide hurbil dira bi espezieak, taxonomikoki estuki erlazionatuak eta, duela gutxira arte, espezie bereko azpiespezie bezala sailkatzen zirenak.

Hemendik aurrerako gogoeta eta proposamenak, beraz, espezie bientzat egingo ditugu, hemen mintzagai nagusi dugun *Carduelis corsicanarentzat* eta bere ahizpa *Carduelis citrinellarentzat*.

Katalanak, frantsesak eta italierak berezko izenak dituzte *C. corsicana* eta *C. citrinella* izendatzeko: Ilucareta, venturon eta venturone. Alemanez Zeisig generikoa darabilte (Acanthis eta Spinus generoentzat darabiltena). Gaztelaniaz, berriz, verderón (*C. chloris* bezala). Bukatzeko, ingelesez, Finch generikoa erabiltzen dute (fringillido guztientzat ohiko den izen orokorra).

Hortaz, inguruko hizkuntzek ez dituzte *Carduelis* generoko espezie hauek 'txirriskil' izendatzen, Serinus generokoak bezala. Eta zentzuzkoa iruditzen zaigu, ez itxuraz eta ez ahotsez ez direlako antzekoegiak bi generoetako espezieak. Hau da, egokiagoak iruditzen zaizkigu gure inguruko beste hizkuntza batzuetan hartutako hautuak (batez ere frantsesak, katalanak eta italierak harturikoa), orain arte euskaraz *C. citrinellarentzat* erabili den "txirriskil" generikoa baino.

Proposamena

Aurreko datuak ikusirik, beraz, iruditzen zaigu aukera polita izan daitekeela frantsesak, katalanak eta italierak darabiltena, *Carduelis* generoko 2 espezie ezberdin hauek izen berezi batekin bataiatuz.

Aukera bat izan liteke euskarazko tradiziozko ondarean dugun beste izenen bat baliatzea, esate baterako 'berdeloi'. Txorrua (*C. chloris*) izendatzeko euskaraz dugun izenik ohikoena, Euskal Herriko hainbat eskualdetan erabiltzen dena, bizi-bizirik dagoena eta izen arrunt estandarizatueta oraindik erabili ez dena.

Hala ere, espezie hauek txorruengandik urrun samar daudela ikusirik, agian errazagoa da "mendi-txirriskil" generiko erraz bat sortzea eta bakoitzari bere espezifikatzailea eranstea.

Proposamena:

***Carduelis corsicana*, mendi-txirriskila korsikar**

***Carduelis citrinella*, mendi-txirriskila arrunt**

Beste proposamen batzuk: *berdeloi korsikar* eta *mendi-berdeloi*.

Ploceus cucullatus

Mundu zaharreko alderdi tropikaletan bizi diren hegaztiak dira Plozeidoak. Talde zabala da, 123 espezierekin, eta "txori ehule" deritze, belarrak erabiliz habia ikusgarriak eraikitzeko duten trebetasunagatik, adibidez, weavers, tejedores, teixidors, Webervögel, uccelli tessitori eta abar.

Plozeidoen arteko genero nagusia *Ploceus* da eta espezierik ugarienetakoa *Ploceus cucullatus*. Kolorez horia, buru beltz eta begi gorriekin.



Afrikako herrialde askotan nahiko ugaria da. Habitat zabaletan zein baso irekietan bizi da; sarritan kolonia zaratatsu handiak eratzen ditu hiri, herri eta hotelen eremuetan.

Bere jatorrizko eremu afrikarretik kanpo ere aurkitu daiteke gaur egun. Kolonia esanguratsuak ezarri ditu Karibe inguruko hainbat herrialdetan eta Europa hegoaldean ere ohiko bilakatu da espezie exotiko inbaditzaile hau.

Taxonomia

- **Familia:** Ploceidae (16 gen.; 123 sp.)
- **Generoa:** *Ploceus* (66 sp.)
- **Sinonimoa(k):** - .

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Ploceus_cucullatus
- <https://avibase.ca/1226BBB2>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik, baina bai talde osoarena, "txori ehule".

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Esan bezala, Ploceidae familiako kide da espezie hau, txori ehuleen taldekoa, eta genero honetako kideak izen generiko horrekin izendatzen dira gure inguruan: Village Weaver (EN), Tejedor común (ES), Tisserin gendarme (FR), teixidor urbà (CA), Dorfweber (DE).

Espezifikatzaileei dagokionez, ikus daitekeenez, bere izaera herritarra nabarmentzen dute, oso ohikoa baita Afrikako hainbat lurraldetako hiri eta herrietan.

Proposamena

Euskaraz dagoeneko badugu txori talde honentzat izen generiko bat, "txori ehule". Halaxe erabili izan da azkenaldian hiztegietan, Wikipedian... eta Euskaltermen ere horrela dator zehaztuta 2003. urteaz geroztik.

Hortaz, Plozeidoak oro har, eta Ploceus generoa bereziki, "txori ehule" izenez ezagutzen ditugu (edo "ehule" soilez, bestela).

Espezifikatzaileari dagokionez, inguruko hizkuntzetako aukerak aztertuta, 'ehule arrunt' edo 'ehule kaletar' izan daitezke aukera erraz eta egokienak.

Proposamena: *Ploceus cucullatus*, (txori) ehule arrunt.

Beste proposamen batzuk: (txori) ehule kaletar.

Ploceus melanocephalus eta Ploceus manyar

Aurrekoaz gain, Ploceus generoko beste espezie bi ere ikusi izan dira Europan eta, hortaz, bide batez, une egokia izan daiteke euskarazko izen arrunta proposatzeko.

Ploceus melanocephalus

Black-headed Weaver, tejedor cabecinegro, tisserin à tête noire, teixidor capnegre, Schwarzkopfweber, tessitore testanera.

Proposamena: *Ploceus melanocephalus*, (txori) ehule burubeltz.

Ploceus manyar

Streaked Weaver, tejedor estriado, tisserin manyar, teixidor ratllat, Manyarweber, tessitore striato.

Proposamena: *Ploceus manyar*, (txori) ehule marradun.

Quelea quelea

Plozeidoen taldeko espeziea, munduan dagoen ugarienetakoa (1500 milioi ale inguru kalkulatu dira).

Afrikarra jatorriz, Europan ere ikusi izan da inoiz bat edo beste, seguru asko ihes egindako aleak.



Taxonomia

- **Familia:** Ploceidae (16 gen.; 123 sp.)
- **Generoa:** Quelea (3 sp.)
- **Sinonimoa(k):** - .

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Quelea_quelea
- <https://avibase.ca/2B6DE136>
- <https://ornitologia.eus/hegazti-zerrenda/>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Txori ehuleen taldekoa den Quelea generoaren jatorrizko izena swahilieratik dator, *kwelea*. Izen hori hartu du izen zientifikoak eta handik zabaldu da inguruko hizkuntza gehienetara, besteak beste, Red-billed Quelea (EN), quelea común (ES), quelea de bec vermell (CA) edo Quelea beccorosso (IT).

Proposamena

Inguruko hizkuntzen bidea iruditzen zaigu arrazoizkoena genero eta espezie hau izendatzeko, izen zientifikotik eta jatorrizko tokiko hizkuntzatik abiatuta, 'kelea mokogorri'.

Beste aukera bat litzateke plozeido guztiak 'txori ehule' generikoarekin izendatzea ('txori ehule mokogorri', adibidez), baina 16 genero eta 123 espezie izanik, iruditzen zaigu askoz eraginkorragoa eta argigarriagoa dela, kasu honetan bederen, genero honentzat generiko zehatz bat proposatzea; 'kelea', alegia.

Proposamena: *Quelea quelea*, kelea mokogorri.

Euplectes afer

Txori ehuleen taldeko kide koloretsua, arra beltz eta hori biziz dago jantzita, *Euplectes* generoko kide gehientsuenak bezalaxe.

Beste txori tropikal koloretsu askoren moduan, Ipar Hemisferioko hainbat herrialdetara ere iritsi da, gizakiak eremanda, besteak beste Japonia, AEB, Espainia eta Portugalera. Euskal Herrian ale bat ikusi zen 2016an, Txingudin.



Taxonomia

- **Familia:** Ploceidae (16 gen.; 123 sp.)
- **Generoa:** *Euplectes* (18 sp.)

Informazio osagarria:

- https://eu.wikipedia.org/wiki/Euplectes_afer
- <https://avibase.ca/4A58452B>
- <https://seo.org/2022/lista-aves-espana/>

Euskarazko izenak

Ondorengo baliabideak begiratu ditugu, [Euskalterm](#), [Elhuyar hiztegia](#) eta [Avibase](#), eta ez dugu aurkitu hegazti honen euskarazko izen arruntik.

Inguruko hizkuntzetako erreferentziak

Euplectes generoa txori ehuleen taldekoa izan arren, Europako hizkuntzetan bereizi egiten da gainontzeko plozeidoetatik. Bi bide desberdin aurkitu ditugu. Hizkuntza gehienek ingelesaren bidea hartu dute (Yellow-crowned Bishop) eta 'gotzain' izendatzen dituzte genero honetako espezieak, esate baterako, Obispo coronigualdo (ES), bisbe groc (CA) edo Vescovo dorato (IT). Frantsesak eta alemanak, ostera, izen zientifikoa egokituz sortu dute izen arrunta, nola frantsesak, *Euplecte vorabé* (FR), hala alemanak, garai bateko sinonimo zientifikoa erabiliz, *Tahaweber* (DE).

Proposamena

Iruditzen zaigu frantsesak hartutako bidea ingelesarena baino garbiagoa eta argigarriagoa dela, informazio gehiago ere ematen duela, eta, beraz, 'euplekte' generikoaren bidez izendatuko genituzke genero honetako kide guztiak. Espezifikatzaileari dagokionez, inguruko hizkuntza gehien bidea da egokiena eta txori honen kolore hori bizia azpimarratuko genuke.

Proposamena: *Euplectes afer*, euplekte hori.

Beste proposamen batzuk: *gotzain hori*, *apezpiku hori*.

Euplectes orix, Euplectes franciscanus eta Euplectes macroura

Aurrekoaz gain, *Euplectes* generoko beste hiru espezie ere ikusi izan dira Europan eta, hortaz, bide batez, une egokia izan daiteke euskarazko izen arrunta proposatzeko, behin generikoa izanik eta inguruko hizkuntzen hautua aztertuta, nahiko erraz izenda daitezkeelako 3 espezie hauek.

Euplectes orix

Southern Red Bishop (EN), Obispo rojo (ES), Euplecte ignicolore (FR), bisbe vermell meridional (CA), Oryxweber (DE), Vescovo rosso (IT).

Proposamena: *Euplectes orix*, hegoaldeko euplekte laranja.

Euplectes franciscanus

Northern Red Bishop, Obispo anaranjado, Euplecte franciscain, bisbe vermell septentrional, Feuerweber, Vescovo arancio.

Proposamena: *Euplectes franciscanus*, iparraldeko euplekte laranja.

Euplectes macroura

Yellow-mantled Widowbird, Obispo dorsiamarillo, Euplecte à dos d'or, bisbe de dors groc, Gelbschulterweber, Vedova spallegiale.

Proposamena: *Euplectes macroura*, euplekte sorbaldahori.

Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Asier Sarasua Aranberrik landu du oinarrizko dokumentu hau. Ondoren, 8 txorizale euskaldunen artean banatu da: Miel Mari Elozegi, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue eta Jon Zubiaur.

Maite Lasok, Azaitz Unanuek eta Edorta unamunok bere horretan onartu dituzte Sarasuaren proposamenak. Gainontzekoek ere, oro har, izenik gehienak onartu dituzte, baina hainbat ohar eta iruzkin egin dituzte, idatziz zein zalantzak argitzeko bileran. Hona hemen garrantzitsuenak.

- *Charadrius pecuarius*. Txirritxo itzain edo txirritxo artzain izendatzeko aukera aztertu da (baita txirritxo abeltzain edo txirritxo pekuario ere). Dagoeneko badugunez koartzotxo itzaina, bide beretik jotzea iruditu zaigu denoi egokiena edo, gutxienez, errazena. Elozegik "abeltzain" erabiliko lukeela adierazi du.
- *Ichthyaetus ichthyaetus*. Sarasuak proposatutako bidea egoki ikusi dute guztiek, "kaiotzar" generikoa sortzearena, alegia. Iruditzen zaigu epe ertainera kaioen taldea modu egokiagoan izendatzeko aukera eta malgutasuna emango digula.
- *Onychoprion anaethetus*. Txenada bridadun edo bridatu beharko zukeen aztertu da. Maskaradun eta bibotedun espezifikatzaileen egiturarekin jarraitzeko, bridadun hobetsi dugu, nahiz eta terminologoei iritzia eskatzeko beharra azpimarratu den.
- *Turnix sylvaticus*. Turnix andaluziar. Eper generikoaren gainean sortutako izenak baztertu dituzte gehienek eta Turnix zientifikotik abiatzea iruditu zaigu erraz eta erabilgarriena, bere idazkera zein izan behar den argitu behar den arren. Espezifikatzaileari dagokionez, nahiz eta oso ikuspegi europarzentrista izan, "andaluziar" erabiltzea hobetsi da denon artean, txorizale gehienentzat askoz argigarriagoa izango delako. Elozegik "afrikar" erabiltzea lehenetsiko luke.
- *Emberiza cioides*. Beste aukeren artean berdantza bibotedun hobetsi da, berdantza siberiar baino zehatzagoa izan daitekeelako. Galarzak larre-berdantza erabiltzea erabat baztertu du, "larre-" espezifikatzailea ez delako batere argigarria.
- *Carduelis corsicana*. Mendi-txirriskila korsikar. Sarasua "berdeloi" generikoa erabiltzearen alde egin du, baina iruzkingile gehienei ausartegia iruditu zaie eta "mendi-txirriskil" utzi da generiko bezala.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernua).

Euskal Batzorde Ornitologikoa, 2024ko irailean